

Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

Munlet eta Eureka Hot IV.

Sarean bueltaka jakin dugu azken hilabete honetan Euskal Herriko bi talde interesgarrik euren disko berriak doan deskargatzeko moduan jarri dituztela Interneten. Munlet taldeak (argazkian)

bere emaitza berria dakar, *Clinica de ruidos* izeneko: elektronika, punk eta rock doinuak nahastu dituzten kantak dira eta Creative Commons lizentziapen banatuko da. Joan den urteko Bilbo Hiria Pop Rock lehiaketan bigarren saria eskuratu zuten.

Diskoa deskargatzeko <http://ttiki.com/245> helbidera jo besterik ez duzu. Eureka Hot IV taldeak berriz, AEBetako musika beltza lantzen du punk rockaz lagundurik. Sei kanta ditu diskoak eta kritikaren txaloak jaso zituen. Deskarga <http://ttiki.com/244> helbidean.

Pantxoa Etchegoin, Terexa Lekunberri, Jean Haritschelar eta Marikita Tambourin ariko dira Biarritzeko Mediatekan euskal kulturaren inguruko mintzaldi zikloan. Aurreneko aldiz antolatu dute ekitaldia eta euskal kantuaz, pastoralaz, arkitekturaz eta hizkuntzaz ariko dira berbetan. Uztailearen 17an zabalduko da zikloa Etchegoinen hitzaldiarekin eta abuztuaren 21ean amaituko da. Informazio gehiago www.eke.org webgunean.

Txapa irratiak Bergarako musika taldeen kanteekin CD bat argitaratu du. Herriko gaztetxean taldeek egindako kontzertuak grabatzen arituak ziren horretarako, baina ez zuten denen grabazioak lortzerik izan. Aitzakia hoberik bai jaialdi bat antolatzeko? Joan den asteburuan kontzertu maratonia egin zuten, Txaparrada Musikala. Talde bakoitzari 20 minutuz agertokia utzi eta emaitza grabatu zuten. Orain kanta bana aukeratu beharko dute diskorako. Gainera, banda bakoitzari buruzko informazioa bilduko duen liburu-xa ere prestatzen ari dira.

Juan Mari Lekuona zenaren azken poemak bildu ditu Jon Kortazarrek *Ibaiek basamortuan* liburuan. Ikerketa lan handiaren ostean Lekuonaren 49 poema argitaragabe berreskuratu ahal izan dituzte.

Lekeitiokale jaialdia asteburuan



19. aldiz ospatuko dute aurten Lekeitioko Kale Antzerki Nazioarteko jaialdia. Hilaren 11, 12 eta 13an izango da eta Errusia, Alemania, Portugal, Quebec, Frantzia eta Herrialde Katalanetatik etorritako antzezlanak izango dira ikusgai. Nazioartea etxetik eraikitzen denez, euskal konpainiek ere izango dute beren tarte: Markeliñek *Terapia* lana aurkeztuko du eta *Zuberoan sortua* izeneko gunea ere antolatu dute. Gune horretan Amaren Alabak taldearen musika eta dantzaz gozatu ahal izango da, baita Mixel Etxekopar musikariak eta Pierre Vissler clownak prestatu duten ikuskizunaz ere. Jaialdia antolatzeaz arduratzen den Xut Kultur Elkartearen esanetan, Zuberoako maskarak eta pastoralak izan dira euskal kale antzerkiaren aitzindariak; Zuberoako artistek tradizio horiek berritzeko egin duten lanari oihartzuna eman nahi diote aurtengo edizioan.

Marky Ramone, The Jayhawks eta Ray Davies Azkena Rocken ariko dira

GASTEIZKO AZKENA ROCK FESTIVAL jaialdian ariko diren zazpi talde berriren izenak jakinarazi zituen joan den astean Last Tour International antolatzailak: Marky Ramone (The Ramones talde ezaguneko kide izandakoa), The Jayhawks, Ray Davies, Hanoi Rocks, Hayseed Dixie, Lagartija Nick eta Yawning. Aurretik konfirmatuta zeuden taldeen artean The Sonics, Blind Melon, Blues Explosion eta Gutter Twins daude, besteak beste.

Zortzi euskal artisten lanak Artiumen

HIRUGARREN aldiz Gasteizko Artium museoak *Inguru burbilak* erakusketa antolatu du. Uztailearen 3an zabaldu zen zortzi euskal artisten lanak ikusgai jarri dituen erakusketa, eta irailaren 14ra bitartean egongo da bisitarien zain. Elena Aizkoa, David Civico, June Crespo, Taxio Ardanaz, David Martínez, Ismael Urrutia, Alain M. Urrutia eta Zigor Urrutiaren lanak bildu dituzte aurtengo ediziorako. Bi urtero antolatzen da *Inguru burbilak* eta dagoeneko 24 artista berriren lanak eman ditu ezagutzera.

Igor Kaltzada soziologoak *Berrian*: «Eusko Ikaskuntzako euskal nortasunaren inguruko ikerketa batean aipatzen zen herrialde eta hizkuntz gutxiagotak, beste edozein komunitate baino lehenago jarri direla blogosferaren lurralde bertualaren konkistan. Eta, noski, txostenak dioenez, euskal blogosferak, oso modu proaktiboan erreakzionatu omen du. Horren testigantza bezala euskararen beraren presentzia sarean. Ez al da mapa globalean, gure lurralde hori eraikitze modua. Bai, ziberespazioaz

ari naiz, mundu birtualez, bada-
kit. Baina... zein izan da, Obamak
Hillary garaitzeko faktore erabaki-
garria? Ziberespazioa eta sareak
oso modu egokian kudeatu izana».

Etsaiak taldeko kideek *Entzun.com-en*: «Euskal musikan iraultza txiki bat edo zerbait berritzailea behar dela iruditzen zaigu. Urte asko daramatzagu dinamika berdinean eta desgastea nabaria da. Ez dakit zer eta nondik etorriko den, baina 80ko hamarkadan bizi izan zen iraultza musikaren antzeko zerbait beharko litzateke».

Atlantikoko horma: bunkerren arkeologiaren arrastoan

Museum Cemento Rezola. Ekainaren 26tik azaroaren 2ra.

Mixel Estebanen *–Regards sur La Seconde Guerre mondiale en Pays Basque* liburuaren egilea– inaugurazio hitzaldiarekin zabaldu da erakusketa. Euskaldunek II. Mundu Gerran –eta Atlantikoko hormaren inguruan– bizitako pasadizoak eta nondik norakoak jaso ditu lapurtarrak.

Lapurdi aldean bizi garen askok Atlantikoko hormaren inguruak ibili ditugu engoitik. Erakusketak hormaren izari alimalea nahiz geure historia hurbila hobeto ezagutzeko parada eskaintzen digu. Hormaren berririk ez baduzu, horra hor erakusketa bisitatzeko nahiz hormaren arrastoa ezagutzeko parada, bakarka edota museoak berak eskaintzen dituen bisita gidatuek lagundurik. Anartean, gogoa pizteko eta hormaren arrastoari segitzeko hainbat datu eta akuilu.

Hormak 4.000 kilometroko itsasertza hartzen du, Lapurditik Norvegiaraino. 12.000 eraikinek osatuta dago, 600 motakoak dira, hormigoiz edo betonez, 291.000 pertsonak bortxaz eginak. Hendaiako eta Norvegiako ipar lurmuturretan eraiki ziren defentsa gune trinkoenak. Normandiako gunea (tankera hartzeko Steven Spielberg-en *Saving Private Ryan* filma gogora ezazu) ere hagitz sendoa izan zen, defentsarako ez ezik britainiaren aurkako eraso ongi antolatze xedetan.

Bunkerrak 1942tik 1944ra bitartean altxa ziren, Adolf Hitlerren aginduz, prefosta. Joseph Goebbels, Erwin Rommel mariskala eta Fritz Todt ingeniaria jardun ziren Führer-aren alboan. Goebbels propaganda *Ministro maltzurra*, Rommel *Basamortuko azeria* eta Todt –Todt erakundearen burua– *Ingeniari iaioa* imajina ditzakegu Hendaiako Anton Abbadia Gazteluan ostatu hartuta: Europa osoa ez ezik mundu osoaren jaun eta jabe izatearekin amets egiten dute.

Hormaren egile Fritz Todt-en ametsak Heinkel He 111 hegazkinean amaitu ziren alta. Adolf Hitlerren aginduz izan ote zen? Erran dezagun heriotzaren kausak ez zirela argitu. Führer-aren aginduz ez zirela argitu, alegia. Horrela idatzita dago. Bunkerren arkeologian duzu arrastoa.



Fritz Todt ingeniaria arduratuzen hormaren diseinuaz.

MIKEL ASURMENDI



euskarazko komunikazioa
eta hizkuntza gutxituak
masterra

aurre-matrikula

Uztailaren 18ra arte

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean

harremanetarako

☎ 94 601 3006

✉ simon.pena@ehu.es

txema.ramirezdelapiscina@ehu.es



2008/09 ikastaldia

euskarazko komunikazioa eta hizkuntza gutxituak unibertsitate masterra

<http://www.euskarazko-komunikazioa.info>

babeslea



Kultura Gara
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

sustatzaileak



antolatzailea



Euskarazko Komunikazioa eta Hizkuntza Gutxituak Masterra